

7/2020 AKTA  
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK  
IRAILAREN 8an EGINDAKO BILERA

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA:**

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

**1. LEHENDAKARIORDEA:**

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

**BATZORDEKIDEAK:**

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea  
Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea  
Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea  
M<sup>a</sup> Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea  
Jesús María Arrizubieta Astiz jn., Tafallako alkatea  
Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea  
Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea  
David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.  
Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.  
Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.  
Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.  
Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko burua  
Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua  
Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakaria  
Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko lehendakaria  
Esther Lacasta Pérez-Illzarbe and., Basaburuako alkatea  
Mikel Zabaleta Aramendía jn., Leitzako alkatea  
Itziar Semberoiz Garralda and., Espartza Zaraitzuko alkatea  
Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea  
Yolanda González García and., Vianako alkatea.  
David Oroz Alonso jn., Urdiaingo alkatea  
Aritz Ayesa Blanco jn., Antsoaingo zinegotzia

**Ezin etorria adierazi du:**

Manolo Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak.

**IDAZKARIA:**

Berta Enrique Cornago and.

Bi mila eta hogeiko irailaren zortzian, goizeko hamabietan, aldamenean adierazitakoak bildu dira era telematikoan Zoom aplikazioaren bidez, Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

**GAI-ZERRENDA**

- 1º.- Ekainaren 9ko ohiko bilkuraren aktaren eta abuztuaren 10 eta 12ko bilkura berezien akten berri ematea eta horiek onestea.
- 2º.- Batzorde eta Kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.
- 3º.- Ordezkeriak izendatzea Nafarroako Bizikidetzaren Plan Estrategikoan parte hartzeko.
- 4º.- NUKFri atxikitzeko eskaerak.
- 5º.- NUKFren 2019ko kontuak.
- 6º.- NUKFren 2020ko kuotak.
- 7º.- NUKF – La Caixa eta Nafarroako Kutxa banku fundazioen hitzarmena, 2020ko hiri eremuak berreskuratzeko proiektua.
- 8º.- Hiri eremuak berreskuratzeko dirulaguntzen 2020ko deialdia.
- 9º.- NUKF – Fenie Energía hitzarmena.
- 10º.- Naiara Ibero Euskara Itzultzaile Teknikariaren kontratazio mugagabea.
- 11º.- Lehendakariaren informazioa.
- 12º.- Galde-eskeak.

## **1. PUNTUA. Ekainaren 9ko ohiko bilkuraren aktaren eta abuztuaren 10 eta 12ko bilkura berezien akten berri ematea eta horiek onestea.**

Aurreko bilkuren akten kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakariak ekainaren 9ko ohiko bilkuran eta abuztuaren 10 eta 12ko bilkura berezietan egondako Batzorde Betearazleko kideren batek oharren bat egin nahi ote duen galdetu du.

Idazkari Nagusiak Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak, egindako zuzenketa baten berri eman du. Proposatutako zuzenketa abuztuaren 10eko bilkura bereziaren aktaren 4. orrialdeko testuan du eragina. Testuak honela dio: “Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak, esan du gaia oso garrantzitsua dela eta zaila dela orain erabaki bat hartu behar izatea.” Horren orde zuzenketa proposatu dute: “Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak, esan du gaia oso garrantzitsua dela baina ez dutela zertan berehalakoan erabaki behar.” Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak, uste du modu horretan hobe ulertzen dela adierazi nahi izan zuena.

Zuzenketa hori aintzat harturik eta ohar gehiagorik ez dagoenez,

### **ERABAKI DA:**

2020ko ekainaren 9an eta abuztuaren 10ean eta 12an egin bilkuren aktak onestea.

## **2. PUNTUA. Batzorde eta kontseilu sektoriale buruzko informazioa.**

Lehendakariak egindako Batzorde eta Kontseiluen berri eman du. Era berean, osasun krisiarekin lotuta deitu dituzten Batzorde eta bilera zehatzen berri eman du. Federazioa horietan guztietan egoten saiatu da.

- **Nafarroako Ongizatearen Kontseilua (2020/06/09).** Adinekoen egoitzak baimentzeko foru dekretu-proiektuaren berri eman zuten.
- **Nafarroako Turismo Kontseilua, (2020/06/12).** Nafarroa Suspertzeko Planerako lan-ildoak eta proposamenak azaldu zituzten. Digitalizazioaren garrantzia azpimarratu zuten.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea, (2020/06/17).** 25 milioiko funtsa onetsi zuen foru lege-proiektuaren berri eman zuten.
- **Lurralde Politikarako Gizarte Kontseilua, (2020/06/19).** Parke fotoboltaikoetarako Udalez Gaindiko Plan Sektorialak (UGPSak) tramitatzeko beharrik ez dagoela hizpide izan zuten eta Garapen Iraunkorreko Helburuen (GIHei) inguruan aritu ziren.
- **Etxegabetzei buruzko arreta batzordea, (2020/06/23).** Etxegabetzei buruzko hitzarmenaren etengabeko jarraipen batzordea abian jarri eta hitzarmen horren eraginkortasuna baloratu zuten.
- **Nafarroako Turismo Kontseilua, (2020/06/29).** Bizigarritasunari buruzko Foru Dekretuaren, etxebizitza hutsen eta etxebizitza horiei alta emateko egiten ari diren jarduketan inguruan hitz egin zuten.

- **Iruzuraren eta Ezkutuko Ekonomiaren Kontra Borrokatzeko lan iraunkorreko batzordea (2020/06/29).** Aurrez aurreko bilera bat egin zuten eta bertan, Gobernuak zerga-ikuskapen eta egiaztapenen emaitzen eta 2020ko zerga-aurreikuspenen berri eman zuten.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua (2020/06/29).** Informazioaren ezeztapenen aurka jarritako erreklamazioak ebatzi zituzten.
- **Erroldatze Kontseiluaren Probintzia Atala (INE), (2020/07/17).** Aurkeztutako txostenak ebatzi zituzten ofiziozko bajei buruzko txostena egiteko.
- **Lurraldea Antolatzeko Batzordea (2020/07/21).** Ergoienako lurralde-okupazioaren estrategiaren eta ereduaren berri eman zuten.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea, (2020/07/22).** Egoitzak baimentzeko Foru Dekretuaren proiektua onetsi zuten.
- **Nafarroako Osasun Kontseilua, (2020/07/28).** Zenbait gai hizpide izan zituzten; besteak beste osasun krisiarekin lotutako aferak, kutsaduren areagotzea, sasoikako langileen arazoa eta osasun zentroen saturazioa.
- **Toki Prestakuntzarako Batzorde Paritarioa (2020/08/21).** Dagoeneko NUKFk aurkeztutako planari aldeko txostena eman zioten eta ebazpena onetsi berri da. Hortaz, hemendik gutxira plana kudeatzen hasi ahalko dugu. Aurrez aurreko jardueretarako protokolo bat onetsi dute.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua, (2020/08/31).**

Covid 19aren krisiarekin lotuta sortutako batzorde bereziak

- **Egoitza-zentro Soziosanitarioetan Osasun Arreta Antolatzeko Unitatea, (2020/06/09).** Egoitza-zentroen egoerari eta hartzen doazen neurriei buruzko informazioa eman ziguten.
- **Trantsizioa kudeatzeko Adituen Batzordea, (2020/06/11).** Batzordea uda igaro ostean berriro biltzea erabaki zuten, orduan egoera kontrolatua zegoela ematen zuelako.
- **Diziplinarteko mahaia Covid19 eta Haurtzarora-Nerabearoa, (2020/06/12).** NUKFk izaera teknikoa duen diziplinarteko mahai batean parte hartu du. Bertan, honakoek ere parte hartzen dute: Hezkuntzak, Gizarte Zerbitzuen Lehen mailako arretak, Osasun Publikoak, Gazteriak, Asociación Navarra Nuevo Futuro entitateak, Herrikoa-k eta abar. Helburua da egoera aztertzea eta alarma egoeratik etendako haur eta nerabeentzako jarduerak sustatzea. Oro har, kezka handia dago haur eta nerabeen mugikortasunari dagokionez egindako murrizketek izango dituzten ondorioen inguruan. Horregatik, mahaiaren helburua da biztanleriaren segmentu horri zuzenduriko dokumentuak sortzea eta jarduerak sustatzea haur eta nerabeak modu seguruan gara daitezen, ezarritako protokoloek jarraiki.

## ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

### **3. PUNTUA.- Ordezkariek izendatzea Nafarroako Bizikidetzaren Plan Estrategikoan parte hartzeko.**

Lehendakariak azaldu duenez, Bakearen eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiak toki entitateen ordezkarien parte hartzea eskatu du Bizikidetzaren Plan Estrategikoa egiteko. Erakundeen arteko mahai bat abiatu nahi dute iraila eta martxo bitartean. Erakundeen arteko mahai horretarako egoki ikusi da toki entitateen zortzi edo hamar ordezkari parte hartzea eta ordezkari horiek Batzorde Betearazlearen kideen artean izendatzea. Ondoren, toki entitate guztiei zabalduko zaie parte-hartzea. Era berean, adierazi zigitenez, komenigarria litzateke espekro politiko guztiaren ordezkariak egotea.

Lehendakariak galdetu du nork duen plan horretan parte hartzeko nahia.

Honakoak dira Bizikidetzaren Plan Estrategikoan parte hartzeko interesa adierazi duten Batzorde Betearazlearen kideak: Alkateen artean, Ander Oroz (Antsoain), David Oroz (Urdiain), Ángel Unzué (Agoitz), Yolanda González (Viana), Esther Lakasta (Basaburua), David Álvarez (Castejón), eta Pedro José Soto (Gesalatz). Horietaz gain, honakoak ere prest agertu dira: Fernando Ferrer (Erriberako Mankomunitatearen lehendakaria), Sabina García (Izarbeibarko Mankomunitatearen lehendakaria) eta NUKFren lehendakaria bera, Juan Carlos Castillo.

#### **ERABAKI DA:**

Bizikidetzaren Plan Estrategikoan parte hartu nahi duten ordezkarien izendapena onestea eta Bakearen eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea.

### **4. PUNTUA.- NUKFri atxikitze eskaerak.**

Leteko eta Amillanoko Kontzejuak NUKFri atxikitze egindako eskaeraren berri eman da.

#### **ERABAKI DA:**

Entitate horien eskaera aintzat hartzea. Horrenbestez, entitateak NUKFko kide izatera igaroko dira bilkuraren egunetik aurrerako ondorioekin.

### **5. PUNTUA. NUKFren 2019ko kontuak.**

Lehendakariak azaldu du kontuen proposamena onetsi behar dela, ondoren, Batzar Nagusiak kontuak onetsi ditzan. Adierazi duenez, osasun krisiagatik ezin izan dira aurreko urtetan egin bezala ekaineko batzar berezian lehenago onetsi. Horregatik, abenduko ohiko batzarraren onespenera jarriko dira.

Ondoren, Cabases jaunak, NUKFren teknikariak, hitza hartu du kontuak azaltzeko eta partida nagusienak berrikusteko. Partida horietan aurrekontuaren eta gauzatutako kopuruaren arteko alde handiagoa egon da.

Gaia Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita,

gehiengoz, zortzi abstentzio daudela,

**ERABAKI DA:**

2019ko kontuen proposamena onestea Batzar Nagusiaren onespenera jartzeko. Kontuen dokumentua aktari atxiki zaio.

**6. PUNTUA. NUKFren 2020ko kuotak.**

2020rako kuotak onestea proposatu da, indarrean daudenak mantenduta.

Aho batez,

**ERABAKI DA:**

NUKFren 2020ko kuotak onestea. Kuoten dokumentua aktari atxiki zaio.

**7. PUNTUA.- NUKF – La Caixa eta Nafarroako Kutxa banku fundazioen hitzarmena, 2020ko hiri eremuak berreskuratzeko proiektua.**

Lehendakariak NUKFren eta La Caixa eta Nafarroako Kutxa banku fundazioen arteko hitzarmena onestea proposatu du, Hiri Eremuak Berreskuratzeko proiektuaren edizio berri bat babestearren. Hitzarmena akta honi erantsi da.

Aurten zuzkidura handiagoa lortu da, 115.000 eurokoa, eta horri esker aurkeztuko diren proiektu guztiak finantzatu ahalko dira.

Hitzarmenak NUKFk beregain hartzen dituen konpromisoak jasotzeaz gain, hitzarmena egoki gauzatzeko jarraipen batzorde bat arautzen du.

**ERABAKI DA:**

Hitzarmena onestea eta gaitasuna ematea lehendakariari sina dezan.

**8. PUNTU.- Hiri eremuak berreskuratzeko dirulaguntzen 2020ko deialdia.**

Lehendakariak hiri eremuak berreskuratzeko dirulaguntzen 2020ko deialdia onestea proposatu du. Aurreko urtetan bezala, 2.000 biztanle arteko toki entitateen proiektuek parte hartu ahalko dute baldin eta proiektuak egiteko langilerik kontratatu badute Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren deialdien babesean. Izan ere, hiri eremuak berreskuratzeko deialdia aipatu beste bi deialdietara lotuta baitago.

Eskaerak aurkezteko epea azaroaren 30era arte zabalik egonen da. Aurreko urtetan bezala, proiektu bakoitzeko 2.500 euroko gehieneko zenbatekoa ezarri da. Deialdia ebatzi aurretik, oinarrietan aurreikusita dagoen ebaluazio batzordeak ebazpen proposamena eginen du.

#### **ERABAKI DA:**

Hiri eremuak berreskuratzeko dirulaguntzen 2020ko deialdia onestea. Deialdiaren dokumentua aktari atxiki zaio.

#### **9. PUNTUA.- NUKF – Feníe Energía hitzarmena.**

Nafarroako udal eta kontzejuetan merkataritza-jarduera garatzen ari den elektrizitatea eta gasa merkaturatzen duen enpresarekin hitzarmen bat onestea proposatu da. Beste enpresa batzuekin dauden hitzarmenen antzera, honako hitzarmenaren helburua da tokiko jabari publikoa modu pribatiboan erabiltzeagatik edo aprobetxatzeagatik 1,5eko tasaren kudeaketa erraztea.

Hitzarmenak indarraldi mugagabea du eta horri heldu nahi dioten toki entitateek NUKFren bidez atxiki beharko dira hitzarmenari. Hala ere, hitzarmen honetako xedapenek ondorioak izango dituzte sinatzen den egunean beste entitate batzuekin tasa hori kudeatzeko sinatutako hitzarmenei atxikita dauden udal eta kontzejuentzat.

#### **ERABAKI DA:**

NUKF-Feníe Energía hitzarmena onestea eta gaitasuna ematea lehendakariari sina dezan. Hitzarmena aktari atxiki zaio.

#### **10. PUNTUA.- Naiara Ibero Euskara Itzultzaile Teknikariaren kontratazio mugagabea.**

Duela urtebete Euskara Itzultzaile Teknikari postuan lanean ari den Naiara Ibero Egañaren kontratazio mugagabea proposatu da. Hasiara batean, aldi baterako kontratua egin zitzaion Mikel Goñi Beriainek eszedentzia eskatua zuelako. Kontratazio hori egiteko, lanpostua era mugagabean betetzeko egindako hautatze prozesua gainditu zuten pertsonekin osatutako zerrenda erabili zuten. Hortaz, eszedentzia amaiturik, langileari kontratu mugagabea egitea proposatu da.

Halaber, Naiara Ibero lanean hasi zela urtebete igaro denez, gainontzeko langileek duten %20ko osagarria esleitzea proposatzen da.

Gehiengoz, 7 abstentzio daudela,

#### **ERABAKI DA:**

Naiara Ibero Egañaren kontratazio mugagabea onestea. Halaber, %20ko osagarria esleitzea postura iritsi zenetik urtebete igaro delako.

## **11. PUNTUA.- Lehendakariaren informazioa.**

Lehendakariak honako gai hauek aipatu ditu:

- Babes eta Asilo programa. Joan den legealdian, Eskubide Sozialetako Departamentuak, Gurutze Gorriak, CEAR-ek, NUKFk eta beste plataforma batzuek asilo protokolo bat egin zuten errefuxiatuentzat asilo prozesua errazagoa eta hobea izan zedin. Lehen, estatu mailako programa zen baina, orain, Nafarroako Gobernuak hartuko du beregain. Horregatik, protokoloa berrikustea proposatu dute. Edozein modutan ere, NUKFk bertan parte hartzen jarraituko du.
- Ekainaren 15ean Koldo Martínez senatari autonomikoarekin izandako bilera.
- Uztailaren 16an Bizikidetzarako Estrategia eta Erroldari buruz izandako bilera.
- Ekainaren 23an zenbait idazkarirekin izandako bilera horietako batzuek Toki Administrazioaren Departamentuari eginiko finkotasun eskaerei buruz. Bilera horren ostean, Federazioak Toki Administrazioarekin hitz egin eta Eguesibarko Udalean eginiko bilkura batean egon zen.
- Uztailaren 1ean izandako bilera hil ala biziko larrialdien inguruan.
- Nafarroako Gobernuarekin sasoikako langileei buruz izandako zenbait bilera.
- Nafarroako Gobernuko Abeltzaintza Zerbitzuarekin izandako zenbait bilera Ingurumena Babesteko Foru Legeari buruzko gaiak lantzeko: abandonatutako animaliak jasotzeko eta artatzeko zerbitzua, udal ordenantzak, zehapen prozedura.
- Eremuko zenbait bilera Gobernuko lehendakariarekin eta Osasun Departamentuarekin COVIDarekin lotutako jarduketak ebaluatzeko.
- Berdintasuneko aholkularitza eta trebakuntza zerbitzuak abiatzea.
- Irailaren 3an Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren zuzendariorde probintzialarekin izandako bilera premiazko gutxieneko diru-sarrera tramitatze / udalen laguntza.
- Lankidetzaren Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin gaitasun digitalei eta mendekotasunari arreta emateari buruzko ikastaroak antolatzeko langabetuentzat enplegarritasuna hobetzeko.
- Iruñeko eta Iruñerriko azpiegitura berdeari buruzko dokumentua egiteko izandako bilera. Uztailaren 22an bilera bat egin zen dokumentua egiteko prozesuaren barruan. Antolakuntza arloko dokumentua da baina ez du balio arauemailerik. Egondako aurrerapenak aurkeztu zituzten eta udalei zein beste erakundeei jarduketa proposamenak eskatu dizkiete dokumentuan txertatzeko. Proposamenak igortzeko epea irailaren 15era arte zabalik dago.
- Azkoiengo Udaleko osoko bilkuran alkatearen erabateko dedikazioari buruz hartutako erabakiaren aurka jarritako gora jotzeko errekursoaren gaitzespena.
- Klima aldaketari buruzko Foru Lege-proiektua. Proiektua izapidetzen ari dela jakitera eman zuten. Toki Araubideko Foru Batzordea deitu zen horren berri emateko baina azkenean bertan behera gelditu zen. Laster, Batzorde Betearazlearen kideei txostena bidaliko zaie proiektuaren alderdi garrantzitsuenekin eta toki esparruan duten eraginekin Toki Araubideko Foru Batzordea berriro deitzen denean landuta eduki ahal izateko.

Larraza jaunak, Irurtzongo alkateak, galdetu du nola egin daitezkeen hitzarmenak Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin toki entitate batek hala egiteko interesa izatekotan.

Cabases jaunak azaldu duenez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bi ikastaro abiatu ditu: gaitasun digitalei buruzkoa bata eta mendekotasunari buruzkoa bestea. Azken horrek praktikak aurreikusi ditu, ondoren, egoitzetan eta etxez etxeko arreta zerbitzuan praktikak egin dituzten pertsona horiek kontratatu ahal izateko.

## **ERABAKI DA:**

Horretaz jabetzea.

### **11. PUNTUA.-Galde-eskeak.**

Semberoiz andreak, Espartza Zaraitzuko alkateak, igerilekuak egokitzeko epearen berri galdetu du 2020ko urtarrilaren 1ean amaitzen baitzen. Eskatu du halaber, informazioa eska dezatela epea luzatuko den jakiteko eta igerilekuak egokitzeko laguntzen inguruan.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, tokiko polizien mahaia berreskuratzea proposatu du. Lehendakariak adierazi dio Barneko Zuzendari Nagusiari proposatuko diotela. Fabo jaunak galdetu du, bestalde, Gerakinari buruzko Errege Lege-dekretuaren berrespenari buruzko albisterik ote dagoen. Lehendakariak erantzun dio horren inguruko informazio ofizialik ez dagoela.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, adierazi du COVID-ak eragindako bi arazo daudela: egoitzetan gastu handiagoak daudela eta eskoletako garbiketa protokoloengatik gastuak handitu direla. Eskatu du NUKFk bi alderdi horien inguruan lan egin dezala.

Larraza jaunak, Irurtzongo alkateak, azpimarratu du gastu handitze horrek eskola kontzentrazioetan duen garrantzia.

Lehendakariak adierazi duenez, gaia gobernuari helarazi zaio jada baina berriz ere helaraziko zaio.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, esan du Iruñeko Udalean gai horren inguruan adostasunak hartu dituztela eta Federazioa premiatu du gobernuari eska diezaiola gasta handitze horrekin lagundu dezan.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko eguerdiko 13:00ak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin sinatu dut.



LEHENDAKARIAREN  
ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.